

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

446

6/2018 DEKRETUA, urtarrilaren 23koa, Pasaiako Portu Agintaritzako presidentea kendu eta izendatzeko dena.

Estatuko Portuei eta Merkataritzako Marinari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 31.1 artikuluan honelaxe dago jasota:

Autonomia Erkidegoko eta Ceuta eta Melillako hirietako organo eskudunak izendatu eta kargugabetuko du portu-agintaritzako presidentea, gaitasun profesional ezaguna duten eta eginkizun horretarako egokiak diren pertsonen artean. Sustapen Ministerioari horren berri eman eta gero, dagokion aldizkari ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da izendapena edo kargugabetzea.

Horiek horrela, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legean eta Estatuko portuei eta merkataritzako nabigazioari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren proposamenez, Gobernu Kontseiluak 2018ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Ricardo Peña Quintela Pasaiako Portu Agintaritzako presidentearen kargutik kentzea.
2. artikulua.– Félix Garciandia Tellería Pasaiako Portu Agintaritzako presidente izendatzea.
3. artikulua.– Estatuko Portuei eta Merkataritzako Marinari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen Irailaren 5eko 2/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 31.1 artikuluan jasotakoarekin bat eginda, gorago deskribatutako izendapena Sustapen Ministerioari jakinaraziko zaio kasuan kasuko aldizkari ofizialean eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek 2018ko otsailaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 23a.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.